2. mailako Hirigintza I: ingurune fisikoa

5. ariketa

GAIKAKO HIRI-IBILBIDEEN AZTERKETA

Bost plano A-1 landuko ditu talde bakoitzak, aurreko ariketako Donostiako zati berdina aztertuz:

1.- Kultura-ibilbidea: Lehen planoan kultura-ondare diren eraikinak, eraikin-multzoak eta espazio publikoak zehaztuko dira (elizak, dorretxeak, jauregiak, bestelako monumentuak, eta abar), haien arteko hiri-ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, morez, eta espazio eraikigabeak, larrosaz.

2.- Kirol-ibilbidea: Bigarren planoan kirolekin erlazionatutako eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (polikiroldegiak, frontoiak, korrika egiteko guneak, eta abar), haien arteko hiri-ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, urdin ilunez, eta espazio eraikigabeak, urdin argiz.

3.- Ibilbide geldoa: Hirugarren planoan hezkuntza-, kultura- osasun- eta gizartearen ongizate-dotazioak zehaztuko dira; hau da, astiro doazen hiritarrek (zaharrek eta umeek, bereziki) erabiltzen dituzten eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (eskolak, jolastokiak, egoitzak, anbulatorioak, merkataritza-guneak eta abar), haien arteko ibilbide bat sortuz. Koloreak: eraikinak, laranjaz, eta espazio eraikigabeak, horiz.

4.- Hiru ibilbideen batuketa: Laugarren planoan gaikako hiru hiri-ibilbideen batuketa zehaztuko da, ondorio nagusiak laburbilduz deskribapen labur batez (250 hitz gehienez), baita eskemen bitartez ere.

5.- Hiru ibilbideak osatzeko edo hobetzeko proposamenak: Ibilbideetan ikusitako gabeziak (etenak, hutsuneak…) eta aukerak detektatu eta hobetzeko moduak proposatu.

Ibilbideak itxiak (zirkularrak) ala irekiak (adardunak) izan daitezke, baita bien arteko nahasketak ere. Lehen hiru planotan eraikin eta kale nagusien izenak zehaztuko dira, haien marrazkiak erantsiz eta izendatuz; ibilbide bakoitzeko sekzio esanguratsuena egingo da, nondik egin den adieraziz. Interesgarria den informazioa gehituko da (kale nagusien zabalerak, ibilbideen luzerak, ikuspegi onak dituzten puntu estrategikoen kokaguneak, eta abar). Adierazi plano guztietan iparra, eskala grafikoa eta taldekideen izenak.

1:3000 edo **1:5000** eskalak gomendatzen dira, baina zatiaren ezaugarrien arabera alda daiteke (sekzioa 1:500 eskalan ere egin daiteke). Planoak paperean (A-4ra profesionalki tolestuta) eta PDF formatuan emango dira (CD batetan).

Oharra: Ikus http://212.145.146.10/ejercicio/concursos/concursos_ocam/060615_itinerarios/060615_iu_doc.html webguneko "*2. PLANOS DE LOS ITINERARIOS*" ataleko PDFak, adibide gisa.

Ariketak **hurrengo eskolaren amaieran** emango dira bukatuta

Donostian, 2011ko azaroaren 21ean

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño